

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

ARGIAn lurra lantzeko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabalak aukeratutako esae-rekin. Hilero lan nagusiak, ilargiaren kokapena eta egutegi biodinamikoaren arabera eguneroko joerak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauk dira ondorengo hitzorduek:

Abenduak 10

Hondarribia
19:00etan,
Kultur Etxean (Denda kalea).

Abenduak 14

Lesaka
Matxinbeltzanean, 19:00etan.
Bidazik eta IKAK antolatua.

Abenduak 15

Elgeta
Udaletxean, 19:00etan.

Abenduak 16

Altzo
Udal aretoan, 19:30ean.

ZER MOZKIN PSIKOTROPIKO ESKEINI DITZAKE BARATZEAK?



KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

Psikotropiko hitzak "burua edo gogo birarazi edo iraultzen duena" adierazten omen du grekoz. Egunerokoan hain okertuak ditugun burua eta gogo jirabiratu eta zuzentzeko baratzea bezain langintza egoki gutxi izango da.

Marratzu duzun porrua da agian ezagunena, baina buruan eragiten duen makina bat mozkin sortzen da bai baratzean. Gero eta gehiago ikusten dira tabako-belarra, lo-belarra, asma-belarra, sorgin-belarra, erabelarra kalamua eta abar. Simaur eta luar pilatan ere perretxiko interesgarriak hazten dira. Artabizarrak ezin ahantziko ditu-

gu; bide horretan gaur egun baratze bueltako hortentsien loreak, gaztainondoaren hostoak, malba, ekilorea eta abar luze bat erretzen dituenik ere bada.

Psikotropikoenak, hala ere, barrazkiak berak dira: tipulin edo azenario guri bat (kras-kras), perrexil ttenttea, piper min bat, iltarxo gordina, Brusela aza... Nire burua biraka jartzeko onenetakoa: uraza edo letxuga moztu berri bat. Letxugari tiraka, egungo letxuen arbasoa den letxuga basatiarekin oso osasuntsua den zigarreta egiten omen da...

Jakoba Errekondo